

ERANSKINA

HERNANIKO UDALA ETA MENPEKO ERAKUNDEEN DIRULAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA

1. artikulua.- Xedea.

Araudi honen xedea hau da: dirulaguntzak emateko orduan Hernaniko Udalak, Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuak eta Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak jarraitu behar duten prozeduraren arautegi orokorra finkatzea.

2. artikulua.- Eremua.

Hernaniko Udalak, Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuak eta Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak pertsona nahiz erakunde publiko edo pribatu baten alde jarritako edozein fondo publikori aplikatuko zaio araudi hau, interes soziala duen edo onurazko jarduerak sustatzeko edo helburu publiko edo sozialak lortzeko beren eskumen eremuaren barruan.

3.- artikulua. Araubide juridikoa

Hernaniko udalak, Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuak eta Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak emandako diru-laguntzak honako hauek arautuko dituzte: araudi honek, dagokion diru-laguntzaren emakida arautzen duten Oinarri zehatzek, Aurrekontuaren Exekuzio Oinarriek, eta, izaera osagarriarekin, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren xedapenak.

4.- artikulua. Plan estrategikoa.

Diru-laguntzak erabaki baino lehen, Diru-laguntzen urteko Plan estrategikoa egingo da, eta planak zehaztuko ditu zer helburu eta ondorio lortu nahi diren, talde bakoitzak izango duen aurrekontu-kreditua edo diru-laguntza mota eta horiek exekutatzeke beharrezko epea.

5.- artikulua. Onuradunak.

Fondo publikoen onuradun izango da: dirulaguntza ematea erabakitzeke arrazoi izan diren jarduerak burutu behar dituen edota dirulaguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena.

6. artikulua.- Onuradunaren betebeharrak.

Onuradunak ondoko betebeharrak izango ditu:

- a) Diru-laguntzaren emakida eragin duen helburua betetzea.
- b) Organo emailearen aurrean arrazoitzea diru-laguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla, eta, era berean, jasotako fondoak arrazoitzea arau hauetan edo diru-laguntza bakoitza arautzen duten oinarritan aurreikusita dagoen moduan.
- c) Organo emaileak edo kontrol finantzarioa egiteko ardura duten organoek egin ditzaketen egiaztapen edo kontrol finantzarioko jarduerak onartzea.
- d) Diru-laguntza jaso duten jarduerak finantzatzen dituzten beste laguntza, diru-laguntza, sarrera edo baliabide batzuk lortu direla jakinaraztea diru-laguntza eman behar duen organoari. Jakinarazpena berria jakin bezain laster egingo da.
- e) Zerga betebeharrak guztiak, bai udalarekin lotutakoak eta baita Gizarte Segurantzakoak ere, egunean dituela ziurtatzea; lehiaketaren kasuan eskaerak aurkezteke gehienezko epea amaitu baino lehen egingo da, eta gainontzeko kasuetan, eskaera aurkezteke unean bertan.

f) Kasu bakoitzean onuradunak izan behar dituen kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta bestelako dokumentuak behar bezala ikuskatuak izatea, Merkataritzako Legeak eta Lege Sektorialak ezartzen dituen terminoetan.

g) Jasotako diru-kopurua zertarako erabili den egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, gutxienez lau urtean, diru-laguntza eman zenetik kontaktzen hasita.

h) Jasotako diru-laguntzari publizitate egokia ematea.

i) Jasotako diru-kopurua itzultzea baldin eta dirua itzultzeko espedientea hasten bada.

j) Ez onartzea, diruz lagundutako jarduera egingo den inguruan, publizitatean edo diru laguntza jaso duten pertsona edo entitateek ekintza egiterakoan honelakoak ager daitezela: diru laguntza ematen duen delegazioari dagokion jarduera esparrutik kanpoko lema, adierazpen, pankarta, ekintza eta abar.

7. artikulua.- Dirulaguntzak emateko printzipioak eta moduak.

Araudi honetan mintzagai ditugun dirulaguntzak publizitate, gardentasun, partehartze, objetibotasun, berdintasun eta diskriminazio-ezaren printzipioen baitan emango dira.

Dirulaguntzak, oro har, norgehiagoka bidez emango dira, baina salbuespen gisa zuzenean ere eman ahal izango dira

8. artikulua.- Norgehiagoka bidezko dirulaguntzak

Aurkeztutako dirulaguntza eskaerak elkarren artean konparatzean datza norgehiagoka, aldez aurretik oinarri erregulatuarekin eta deialdian ezarritako balorazio irizpideen arabera lehentasun orden bat finkatzeko, eta irizpide horiek aplikatuta balorazio altuena lortu duten eskaerei esleitzean, erabilgarri dagoen kredituaren barruan deialdian ezarritako mugarekin.

9. artikulua.- Norgehiagoka bidezko dirulaguntzak izapidetzea.

1.- Dirulaguntza emateko Oinarri Erregulatuak egitea.

Oinarri erregulatuak Tokiko Gobernu batzarrak onartuko ditu dagokion batzorde informatuak aldez aurretik irizpena emanda. Organismo Autonomoaren kasuan, bere zuzendaritza-batzordeak onartu beharko ditu Oinarri Erregulatuak eta Toki Entitate Txikiaren kasuan, berriz, Auzo Batzarrak.

Aipatu oinarriak honako alderdiak hartuko ditu kontuan:

a) Diru-laguntzak izango duen helburua definitzea.

b) Diru-laguntza lortzeko onuradunek bete behar dituzten baldintzak, eskaerak aurkezteko modua eta epea

c) Diru-laguntza jasoko duten pertsona juridikoek bete beharreko kaudimen- eta eraginkortasun-baldintzak.

d) Diru-laguntza emateko prozedura.

e) Diru-laguntza emateko irizpide objektiboak eta, egokia bada, horien ponderazioa.

f) Diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa edo horiek zehazteko irizpideak.

g) Diru-laguntza emateko prozedura eta ebazpena jakinaraziko den epea bideratu, agindu eta erabakitzeko organo eskudunak.

h) Diru-laguntzaren emakida behar bezala arrazoitzeko kontabilitate-liburu eta -erregistroak zehaztea egokia bada.

- i) Diru-laguntzaren xedea bete dela eta jasotako diru-laguntza zertan erabili den justifikatzeko onuradunak dituen epe eta moduak.
- j) Diru-laguntza eman behar duen organoaren aldeko berme-neurriak, horiek zehazteko baliabideak eta ezeztatze prozedura.
- k) Ordainketa aurreratuak eta konturako abonua egiteko aukera, eta halaber, berme-erregimena, egokia bada onuradunek aurkeztu beharko dutena.
- l) Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero, ebazpena aldatzea eragin dezaketen egoerak.
- m) Bateragarritasun edo bateraezintasuna, helburu berberarekin emandako beste diru-laguntza, sarrera edo baliabide batzuekiko; diru-laguntza horiek edozein Administrazio edo erakunde publikok emandakoak izan daitezke, hala nazionalak nola Europar Batasunekoak edo nazioarteko organismoenak.
- n) Diru-laguntza emateko ezarri diren baldintzetan izan daitezkeen ez-betetzeak sailkatzeko irizpideak. Irizpide horien arabera erabakiko da onuradunak jasoko duen kopurua edo, egokia bada, itzuli beharko duen kopurua, eta betiere proportzionaltasun irizpidea hartuko da kontuan.

2.- Gastuen espedientearen onarpena. Atal hauek hartuko ditu:

- a) Aurrekontu kreditua badagoela eta proposatutako kreditua egingo den gastuaren edo hartuko den obligazioaren izaerarentzat egokia dela egiaztatuko duen agiria.
- b) Gastu onarpena, dagokion organoak erabakita.

3.- Deialdia:

Deialdia Gobernu Batzarrak onartuko du, edo zuzendaritza-batzordeak, Organismo Autonomoaren kasuan, eta Auzo Batzarrak Toki Entitate Txikiaren kasuan, emakida Arautzen duten Oinarriak bertan idatzita egongo dira eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Deialdiaren gutxieneko edukia honakoa izango da:

- a) Oinarri arautzaileek ezarritako xedapenen berri emango da, eta era berean, agintaritzaren zein aldizkaritan argitaratuko den jakinaraziko da, dituen ezaugarrien arabera deialdian bertan jakinarazten ez badira behintzat.
- b) Diru-laguntzak aurrekontuko zein kredituren kontura izango diren eta erabilgarri dauden kredituetan deituriko diru-laguntzen gehienezko zenbatekoa, edo horrelako informaziorik ezean, diru-laguntzen zenbateko balioetsia.
- c) Diru-laguntzaren helburua, baldintzak eta emakidaren xedea.
- d) Emakida lehiaketa bidez erabaki dela ziurtatzen duen adierazpena.
- e) Diru-laguntza eskatzeko baldintzak eta horiek ziurtatzeko modua.
- f) Prozedura erabakitzeko eskumena duten organoak adieraztea.
- g) Eskakerak aurkezteko epea.
- h) Erabaki eta jakinarazteko epea.
- i) Eskaearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioa.
- j) Egokia izanez gero, eskaera berriro egiteko aukera.

k) Ebazpenak administrazio bideari amaiera ematen dion adieraztea, eta, horrela ez bada, gorako errekurtsioa jartzeko organoaren izena.

l) Eskaeren balorazioa egiteko irizpideak.

m) Jakinarazpena helarazi edo argitaratzeko baliabidea

4.- Eskaeren balorazioa.

Diru-laguntzak ematea proposatuko duen batzorde informatzaileak ebaluatuko ditu eskaerak, honako urrats hauek emanez: Organismo Autonomoaren kasuan, dagokion Batzorde Teknikoak egin beharko du ebaluazioa eta Toki Entitate Txikiaren kasuan, berriz, Auzo Batzarrak.

Ebaluazioak honakoak azaldu beharko ditu:

a) Diru-laguntza ematea erabakitzekeo datuak egiaztatzea, arreta berezia ezarriz dirulaguntza jasoko duen jardueraren kostu zuzenean, izan ere, dirulaguntza (beste erakunde publikoren batek helburu bererako eman lezakeen dirulaguntza barne) ezingo da inoiz jardueraren kostua baino handiagoa izan.

b) Eskaerak ebaluatzea, diru-laguntzak emateko Oinarri Erregulatuzaileetan finkatutako balorazio irizpideen arabera.

c) Diru-laguntza emateko proposamena egitea honako datu hauekin: eskatzaileen eta bakoitzari dagokion zenbatekoaren zerrenda, ebaluazioa eta laguntza emateko erabilitako irizpideak.

5.- Diru-laguntza emateko erabakia.

Dagokion informazio batzordeak emakida-proposamena jakinarazi eta gero, alkateak edo Saileko Delegatuak hartuko du emakida-erabakia. Organismo Autonomoaren kasuan, erabakia zuzendaritza-batzordeak hartuko du, dagokion Batzorde Teknikoak jakinaraziko dion proposamenean oinarrituta eta Toki Entitate Txikiaren kasuan, berriz, Auzo Batzarrak.

Erabaki horretan honakoa adieraziko da:

a) Eskatzaileen zerrenda.

b) Diru-laguntzen onuradunak eta horien zenbatekoa.

c) Balorazio irizpideak.

d) Gainontzeko eskaeren gaitzespenaren aipamen zehatza.

Diru-laguntza emateko erabakiaren berri eskatzaileei emango zaie eta emandako diru-laguntzak kontabilitateko D agirian erregistratuko dira.

Emandako diru-laguntzak Erakundearen iragarki-taulan argitaratuko dira, eta ebazpenaren laburpen bat argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Emandako diru-laguntza bakoitza 3.000 euro baino gutxiago bada, nahikoa izango da erakundearen iragarki-taulan argitaratzea.

10. artikulua.- Zuzeneko erregimenean emandako diru-laguntzak.

Diru-laguntzak zuzenean honako kasu hauetan eman ahal izango dira:

a) Aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitakoak.

b) Lege mailako arau batek ezarritako emakidak edo horien zenbatekoak.

c) Aurrekontuan izendun gisa jaso ez, eta Diru-laguntzen arrazoia interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa denean edo deialdi publikoa egitea eragozten duten eskatzaileen gabezia dagoenean. Kasu hauetan Udal Batzarrak ebatziko du.

11. artikulua.- Zuzeneko erregimenean ematen diren diru-laguntzen tramitazioa.

- 1.- Interesatuaren eskaera, diru-laguntza ematea erabakitzeko beharrezkoak diren agiri eta informazioarekin batera.
- 2.- Diru-laguntza ematea erabakitzeko datuak egiaztatzea (dagokion udal sailak), arreta berezia jarriz diru-laguntza jasoko duen jardueraren kostu zuzenean, izan ere, diru-laguntza (beste erakunde publikoren batek helburu bererako eman lezakeen diru-laguntza barne) ezingo da, edozein kasutan, jardueraren kostua baino handiagoa izan.
- 3.- Udal Sailaren proposamena diru-laguntza emateko, honako ezaugarri hauekin aurkeztuta: diru-laguntzaren zenbatekoa, aurrekontu kreditua eta arrazoiak.
- 4.- Aurrekontu kreditua badagoela eta hori egingo den gastua edo obligazioaren izaerari badagokiola egiaztatuko duen ziurtagiria.
- 5.- Alkateak, Organismo Autonomoaren lehendakariak, dagokion arloko delegatuak edo auzo alkateak hartuko du diru-laguntza emateko erabakia. Erabakian agertuko da diru-laguntza nori egokitu zaion eta zenbatekoa den. Baimendutako gastua ezin da izan guztira emandako kopurua baino handiagoa.
- 6.- Diru-laguntzaren erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta emandako diru-laguntza kontabilitateko AD agirian erregistratuko da.

12. artikulua.- Aldaketak.

Diru-laguntza emateko kontuan hartzen diren baldintzak aldatzen badira eta, bereziki, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk emandako diru-laguntza edo laguntzarik jasotzen bada, diru-laguntza emateko erabakia aldatu ahal izango da.

13. artikulua.- Diru-laguntzaren justifikazioa.

Diru-laguntza justifikatu behar izateak bi helburu ditu:

- 1.- Emandako diru-kopurua, diru-laguntza jasoko duen jardueraren xedea betetzeko erabili dela egiaztatzea.
- 2.- Lortutako emaitzak frogatzea.

Obligazioa ontzat jo eta likidazioa egiteko, ezinbestekoa da justifikazioa.

Bi kasu desberdin bereiz ditzakegu hartzailearen izaeraren arabera:

a) Erakunde publiko edo pribatuei emandako diru-laguntzen kasuan, onuradunek aurkeztu beharreko agiriak honakoak izango dira:

- 1.- Jarduera azalduko duen txostena.
- 2.- Diru-sarrera eta gastuen kitapena, lortutako etekina adieraziz.
- 3.- Burututako gastuak egiaztatuko dituzten fakturak edo baliokideak diren agiriak, jatorrizkoak edo, hala ez balitz, fotokopia konpultsatua.

Txostenean, diru-laguntzaren xedea betetzen dela frogatzeko beharrezkoak diren alderdi guztiak adieraziko dira.

Datuak, dirulaguntza jasoko duten jardueri buruzkoak bakarrik izango dira, entitate baten orotariko jarduera finantzatzen denean izan ezik. Kasu horretan, hartzaileek bere ohiko kontuen berri eman beharko dute eta hartzaileak kontabilitatea eramatera behartuta badaude, merkataritza-legeriak eskatzen dituen agiriak aurkeztu beharko dituzte: balantzea, galera eta mozkinen kontua eta txostena. Txostenean jasotako diru kopurua zertan erabili den adierazi behar da.

b) Familiei emandako dirulaguntzen kasuan, hartzaileek honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- 1.- Dirulaguntza ematea erabakitzeko baldintzak betetzen direla adierazten duten agiriak.
- 2.- Egindako gastuak egiaztatuko dituzten fakturak edo baliokideak diren agiriak, jatorrizkoak edo, hala ez balitz, fotokopia konpultsatua.

Premia handia duten familien kasuetan froga agiriak ordainketa egin ondoren aurkeztuko dira.

14. artikulua.- Justifikazio epea

Dirulaguntzaren justifikazioa obligazioa onartu aurretik egingo da (aurreko artikuluan aipatutako kasua salbu). Dirulaguntza norgehiagokako erregimenean ematen bada, froga agiriak aurkezteko epea Oinarri Erregulatzaileretan zehaztuko da.

Justifikazioa dirulaguntza ematen den urteko ekitaldian bertan egingo da. Halere, dirulaguntzaren xedea duen jarduera urte natural osoan garatzen bada, justifikazio epea hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 arte luzatuko da.

15. artikulua.- Froga agirien egiaztapena.

Froga agirien egiaztapena, hain zuzen, dagokion informazio batzordeak, dagokion batzorde teknikoak edo Auzo Batzarrak egingo du eta, hala badagokio, onespena eman –teknikari arduradunaren eta lehendakariaren sinaduraren bitartez– eta espedientea Kontu-hartzailetzara igorriko du.

16. artikulua.- Dirulaguntzaren ordainketa.

Kontu-hartzailetzak, kontu-hartzailearen oniritzia duela (Osasun eta Gizarte Ongizateko Udal Patronatuaren kasuan, gerentearen oniritzia duela), kontabilitateko erregistratzea egin eta ordainketa egiteko tramiteei ekingo die.

17. artikulua.- Itzulketa.

Ondorengo kasuetan jasotako diru-kopuruak eta berandutzako interesak itzultzeko eskatuko da:

- a) Emakida-prozeduraren deuseztasunezko adierazpen judizial edo administratiboa
- b) Diru-laguntza lortzea horretarako eskatutako baldintzak faltsutuz edo diru-laguntza lortzea eragotziko zuketean baldintzak ezkutatu.
- c) Diru-laguntza ematean kontuan hartu den helburua, jarduera edo proiektua ez betetzea bere osotasunean edo zati batean, edo diru-laguntza emateko ezinbestekotzat jotzen den eginkizuna ez betetzea.
- d) Arrazoitze-betebeharra urratzea edo behar bezala ez arrazoitzea.
- e) Diru-laguntza udalarengandik jaso duela zabaltzeko betebeharra urratzea.
- f) Arau hauek deskribatzen dituzten egiaztatze eta kontrol finantzarioko jarduerak betetzeko eragozpenak edo aitzakiak jartzea edo horiek betetzeko prest ez egotea.

g) Emakida-ordenan ezarritako helburua aldatzea higiezinaren ondasun inbentariagarrien kasuan, emakida eman eta hurrengo bost urteko epean.

h) Oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez bada dirulaguntza berraztertu egingo da eta, hala badagokio, baliogabetu edo emandako diru kopurua itzuli egin beharko da.

Jasotako diru-kopuruaren zati bat baino ez bada arrazoitzen edo helburuaren zati bat ez bada betetzen, arrazoitu gabeko zatia bakarrik itzuli beharko da.

Emandako diru-laguntza itzultzeko arrazoia diru-laguntza hori jaso duen jardueraren kostua gainditzen duten beste diru-laguntza batzuk jaso izana bada, lortutako soberakina bakarrik itzuliko da.

Alkatea, Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
Hernani, 2019ko azaroaren 12a.